

BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1997ko otsailaren 14a. 52. zenbakia. Doan banatzen da.

## “ANDOAIN, DORRETXEAK NONAHI”



Udal artxibategiko argazkia. Egilea: Karmelo Pérez García

### TXERTOTA SAGARDOTEGI BERRIA



San Esteban auzoa TXERTUETA baserria  
ANDOAIN ☎ 59 07 21

150 pertsonentzako lekua  
(aparkalekua).

Sagardoa beraiek egiten dute.

Abuztura arte irekita.

Astegun gauetan irekita  
(Igandetan izan ezik).

Larunbata eta igande eguerditan  
irekita.




# PELLO ERROTA

## HERRI IKASTETXEA

ASTEASU - Elizmendi z/g Tfno. 69 22 15

- HAUR HEZKUNTZA (2-6 URTE)
- LEHEN HEZKUNTZA (6-12 URTE)



**Matrikula**  
*Otsailaren 17tik*  
*Martxoak 7ra*

### EZAUGARRIAK

- Euskalduna
- Inguruari lotua
- Ikasleen beharretara egokitua
- Ikaslea beste inguru eta errealitatekin harremanetan jartzen saiatzen dena

### BALIABIDEAK

*Urtez-urte hornitzen eta osatzen doazen:*

- Liburutegia
- Bideogela
- Laborategia
- Informatika gela

### ZERBITZUAK

- Jangela
- Autobusa

# Matrikula <sup>zaitez</sup> orain zure eskolan

Pedro M<sup>a</sup> Otaño Herri Eskola ☎ 69 14 78



- Eskola Publiko eta euskalduna.
- Haur hezkuntza 2 urtetik aurrera.
- Kalitatezko hezkuntza eskola ireki batean.
- Instalazio egokiz hornitua.
- Jangela zerbitzua.

"Dei iezaguzu eta zatoz eskola ezagutzera"

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Joxin Azkue, "Tetraplegia... eta alzheimerrak".
2. **GALDEZKA.**  
Zein izan da azkenaldian jaso duzun ustekabea?
3. **ADUNA.**  
Santa Agedako kantariak.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Txitibar betiko gasolindegia.  
Liburutegiko haurren gela margotuta  
Xosé Manuel Beiras Andoainen
7. **ASTEASU.**  
Plater-tiroko zelaia itxi egin dute.
- 8-9. **BILLABONA.**  
Industrietako hondakinak nora?  
Sexualitateari buruzko hitzaldia.
10. **ZIZURKIL.**  
Eskola berrituko dute.
11. **ENPRESA.**  
Txertota, sagardotegia eta nekazal turismoa.
- 12-13. **ERREPORTAJA.**  
Dorretxeak, garai bateko historia ezagutzen.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Aiurriko komikilariak.
- 16-17. **KULTURA.**  
Larramendi Bazkunaren biltzar nagusia.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** IPAR, S.L. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramon Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## TETRAPLEGIA... ETA ALZHEIMERRAK



**JOXIN AZKUE**

**B**urutu berria dugu, Senideak familiarte erakundearen proposamenari jarraituz, Aiztondo bailarako udalek eraturako presoak Fuskal Herriratzearen aldeko manifestazio arrakastatsua. DENOK BATERA, PRESOK EUSKAL HERRIRA! Eguraldia bera ere ez genuen aldekoa izan, baina han bildutakoek, herri honek oraindik ilusiotan sinesten duela erakutsi nahi izan genuen beste behin. Egun batzuen igarotzeak eskaintzen duen distantziak, egoeraren azterketarako aukera ematen du. Ezertarako balio al dute horrelako ekintzek? Pena merezi al du egindako bideak, biderik egin bada behintzat? Noiz arte horrela? Noizko amets gaizto honen bukaera? Une zailean gaudela esateak ez du inor harrituko. Gure gizarte honen zauria geroz eta sakonagoa dirudi. Manifestazioa egin, egin da. Baina presoak guregana ekartzeko asmoaren bitarteko zen, ez helburu. Gure lana ez zihoan manifestazioa bat antolatze hutsera zuzendua: manifestazioa beste zerbait sakonagoa denuntziatzeko pauso txiki bat besterik ez zela ulertzen genuen. Tamalez, ez da hori gure buruzagi askoren burutan dabilena, nonbait. Burrenba handia egin berri dute Xabier Arzallusek tetraplegia politikoari buruz esandakoak. Baina ez da hori gure politikari askoren gaixotasun bakarra; beste bat ere dute baruan: alzheimer politikoa. Kezkagarria da benetan, komunikabideetan etengabe agertzen diren euskal politiko horiek erakusten ari diren presoci buruzko jarrera politikoa. Alzheimerrez janda bezala, ahaztu egin dira daudenik ere! Gauza bera gogoratzen zigun Martin Ugaldek (gure arteko eredu norbait bada, hori Martin Ugalde dugu) bere bihotzeko kuttuna den Egunkarian duela gutxi. Presoen gaia erabili duela horrela interesatu zaie, baina, beraiei komeni bezain pronto, sua itzali zaie. Zer pentsa, bada, bere burua oso abertzaletzat duen hainbat alderdik prozesu honen aurrean erakutsi duen jarrera xeble horretaz? Edota presoen gaia aparkatzeko eta beste behin ere kajoi-atzean zokoratzeko ahalegin nabarmenaren aurrean? Lehendik esandako gutzia, kolpetik abazten zaie. Alzheimer politikoz jota daude. Erradikalek erabiltzen duten biolentzia omen ezinbesteko oztopoa. Horrela dio tesi ofizialistak. Biolentoen jarrera aldatzen ez den bitartean, ez omen da urrats esanguratsurik emango bake-bidegintzan. Zer dugu hori? Arrazoi ala aitzakia? Edozein bihozgabetzen du etorkizun horrek. Egia da Herri Batasunan bertan ere bat baino gehiago direla ETak burutu dituen bi sekuestroek ez dutela bake-bidegintzarako laguntzen pentsatzen dutenak. Buruzagi historikoa den Patxi Zabaletak adibidez, sekuestroei eta kale-txikizioei buruzko bere kezkek adierazi berri ditu. Baina Zabaletak garbi asko zioen bezala, ezin dira sekuestroak salatu eta bitartean, euskal presoen hainbeste urtectako dispersioa eta torturak babestu eta isildu. Alzheimer birjinala. Postura eta jarrera ausartak behar ditu herri honek. Malgutasuna eta negoziatzeko gogoia. Oso egoera komodoan dagoen hainbatek, euskal gatazka hau jasateko modukoa dela dio. Baina aitzakiaz beteriko posibilismo demagogikoa erabiliz, gaur hemen gauza bat esan eta bihar han bestea egiten dutenez aspertuak gaude jadanik. Beraientzat, presoen hurbilketa estrategia baten barruko taktika bat besterik ez da. Klinexa bezala: erabili eta bota. Fusko alzheimer tetraplegikoa. Presoen senideak ez dira, ez, iritzi berekoak izango. Hauentzat ez baita taktika, bihotzaren zartada baizik. Eta ez nolana hikoia. Gainera, Antonio Galak dioen bezala, bihotzeko zimurrak dira plantxatzeko zailenak. Halaz ere, hasieran nion bezala, ilusioaren iparrea sinesten dugu oraindik. Nik behintzat bai.



Aldizkari honetako Fuskal Jaurritzeko Kultura Sektorearen laguntza jaso du.



Aldizkari honetako Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskerari Departamenduaren laguntza jaso du.

## ZEIN IZAN DA AZKENALDIAN JASO DUZUN USTEKABEA?

*Telebistan ustekabeak eman eta eman ari-  
tzen dira, baina horietako ustekabe asko,  
ustekabe baino gehiago, ikuskizun bihurtzen  
dira. Ustekabe handi eta ikusgarri horiek,  
ordea, ez dute guk behin edo beste jasotzen  
ditugun ustekabe txiki horien parerik. Uste-*

*kabeko eskutitz batek, aspaldiko lagun  
baten telefono deiak, opari batek edota  
beste edozein gertaerak eguna alaitzea lor-  
tzen du askotan. Eta zuretzat, zein izan da  
azkenaldian jaso duzun ustekabea Aiurriko  
kazetaria galdezka etortzeaz aparte, eh?*



### **Alberto Albizu, langabea. Billabona.**

Ez dut inolako ustekaberik jaso azkenaldian; ez dut ez notizia onik ez txarrik jaso. Egia esan, hobetu daiteke!



### **Alazne Goya, ikaslea. Andoain.**

Ustekaberik handiena gaur goizean jaso dut. Andoaingo Udalak antolatutako maskara lehiaketa irabazi dudala esan didate gaur, eta ez nuen sari hori irabaztea espero. Oraindik ezin dut sinetsi.



### **Joxe Ramon Gorostidi, langilea. Aduna.**

Ez, ez dut ustekaberik jaso azkenaldian, dena igualtsu joan da. Ez da aparteko gora beherarik izan.




### **Mirian Galarza, ikaslea. Zizurkil.**

Bai, lehengusu bat eduki dut (erantzun digu alboan zuen lagunak). Baina niri ez, niri ez zait ezer berezirik gertatu azkenaldian (erantzun digu berak penaz).




### **Maria Jose Izagirre, langilea. Andoain.**

Ustekabe handiena zu niregana hurbildu eta galdera hori egitea izan da. Ustekabean harrapatu nauzu; presaka naiz eta orain ez dut buruan bestelako ustekaberik.



### **Ander Zelarain, langilea. Asteasu.**

Ez dakit ba zer esan... Ustekabe handiena lana aurkitu dudala izan da. Horretaz gain, ez zait aparteko ezer gertatu.



# XIXORI

**BELARDENDA**  
DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

**FRANCISCO  
MENDIKUTE  
KARATEGIA**



Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

## HERRIKO ARTISTAK

**H**amabi lagun elkartzen dira larunbatero Adunako kultur aretoan eskulanak egiteko. Josune Lazkanok erakusten die eskulanak egiten, eta bakoitzak gustuko dituen artelanak egiten ditu: egurra lantzen, makramea egiten edota kristala margotzen, besteak beste, pasatzen dute arratsaldea. Zuk ere eskulanik egin nahi baldin baduzu, dei ezazu 693930 telefonora izena emateko.



*Lan eta lan aritzen dira*

## SANTA AGEDAKO KANTARIAK

### Bildutako dirua eskola txikien eguna antolatzeko izango da

*Arratsaldeko seietatik gauerdirarte aritu ziren Adunako gazte eta helduak kantari Santa Ageda bezperan. Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren guztira, eta herriko baserri eta etxe guztiek abeslari berezi hauen bisita izan zuten. Bildutako dirua ekainaren 8an herrian ospatuko den eskola txikien eguna antolatzeko izango da.*

**E**z zuten asko entsaiatu beharrik izan Santa Ageda bezperan kantari irteteko. Kantari irten baino egun batzuk lehenago guztiak bildu eta Santa Agedako koplak nola abesten diren piska bat gogoratu ondoren, ederki asko abestu zuten hilaren lauan. Soinujole batek

girotu zuen kantu saioa, eta ongi abesten zutelako edota nekatu egingo ziren beldurrez, jateko eta edateko gauza ugari eskaintzen zieten etxeetan.

### *Ekainaren 8an eskola txiki eguna*

Bildutako dirua herriko eskolari emango zaio, ekainean ospatuko duten eskola txikien eguna antolatzeko. Aurretik hamargarrengo aldiz ospatu da jai hori, eta herri txikitako eskolak laguntzeko helburuarekin egiten da.



**ALFARO**  
J A T E T X E A

EGUNEROKO MENUA  
Etxeberrieta auzunea  
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

*Berri Beltz*  
Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

**UNAI**  
oinetakoak

ume eta gazteentzako oinetakoak

Kale Nagusia 12 - Bi BILLABONA  
☎ 69 12 61

## SANTA AGEDA EGUNA OSPATZEN



Larramendi Bazkunak antolatuturik 80en bat lagunek kantuz alaitu zituzten Santa Ageda bezperan herriko kale eta auzoak. Aurten Aita Larramendi ikastolako guraso eta irakasleek ere abesbatza horretan parte hartu dute eta guztiek Ontza elkartean eginiko afariarekin bukatu zuten ospakizuna. Denetara, 66.881 pezeta bildu zuten aurten, Larramendi Bazkuna-ren defizita estaltzeko utzi dena.

## TXITIBAR, BETIKO GASOLINDEGIA

Cepsa etxearen gasolina eskaintzen du

*Txitibar gasolindegia lanean noiz hasi zen zehatz esatea ez da erraza. Herritar askok betidanik ezagutzen duten zerbitzua da, baina, funtzionatzen hasi zenetik gaur egunera aldaketa asko izan ditu. Egun bezero kopurua asko jaitsi den arren, lan horretan jarraitzeko asmoa azaldu digute jabeek.*

Txitibar gasolindegian urte askotan lan egin duen Luzia Zatarainek etorkizuna nahikoa beltza ikusten du. Izan ere, garai batean, Zizurkil, Aduna, Urnieta, Lasarte, Andoain eta inguruko herrietako jendea Txitibarrera joaten zen gasolina bila. Egun, ordea, bezero kopurua asko jaitsi da: "Lehen egun guztian gelditu gabe zerbitzatzen genuen gasolina, orain berriz, lan gutxiago daukagu. Gasolindegi handi asko jarri dira, eta beraz, jendeak edonon har dezake gasolina". Txitibarren gasolina emateaz gain, olio mota ezberdinak, aditiboak eta berragailuentzako kerosenoa saltzen dute, besteak beste.

### Familiaren lana

Luziak, gasolindegia noiz ireki zuten zehatz-mehatz gogoratzen ez duen arren, gasolinako lehen eskaria 1934. urtean egin zela gogoratzen du. Amaren nahari jarraituz jarri omen zuen Luziaren aitak gasolindegia, eta bertan lana beti familiako kideek egin dute. Egun, Luziak zerbait laguntzen duen arren, bere hilobari utzi nahi dio gasolindegia ardura eta lana. Madrileko Cepsa etxeko enkargatuarekin biltzekotan dago Luzia, Txitibarrekin zer egingo duten zehazteko. Luziaren ustez, gasolindegiak funtzionatzen jarraituko du. Hala ere, bada bere etorkizuna zalantzan jartzen duen zerbait: Udalak Etxeberrieta auzorako duen plangintzaren ondorioz, gasolindegia kentzea posible da: "Oraindik ez dago ezer erabakita, beraz, guk beti bezala lanean jarraituko dugu".



*Gasolina zerbitzua da gebienek eskatzen dutena*

# EMAKUMEAREN EGUNERAKO KARTEL LEHIAKETA

**Lanak otsailaren 18an eta 19an aurkeztu behar dira**

*Andoaingo Udalak Emakumearen nazioarteko eguna iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Andoainen jaio, bizi, ikasi edota lan egiten duen 16 urtetik gorako emakume orok har dezake parte.*

**K**artelak 65 cm-ko altuera eta 31 cm-ko zabale-  
ra izan behar du, eta neurri horietara egokitu-  
ko da marrazkia. Guztietan ondo nabarmen-  
durik honako testuak azaldu beharko du: "Martxoak  
8. Emakumearen nazioarteko eguna. Andoaingoin  
1.997". Lanak koloretan egingo dira.

*Aurkezteko baldintzak eta saria*

Kartelak Urigain Kultura Etxean aurkeztu behar dira otsailaren 18 eta 19an, goizeko hamarretatik ordubatera. Lan bakoitzarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu behar da, eta kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira. Kartazalaren kanpokaldean eta kartelaren atzekaldean berriz, egilearen adina eta leloa. 40.000 pezetako saria bakarra izango da eta saritutako kartela Andoaingo Udalaren jabetzakoa izango da. Sari-tuak izan ez diren lanen egileek martxoaren 17tik 21era jasoko dituzte beren kartelak.

# LIBURUTEGIKO HAURREN GELA MARGOTUTA


**Beñat Arregi andoaindarren lana izan da**

*Andoaingo Udalaren deialdiari erantzunez aurkez-  
tu zen Beñat Arregi andoaindarra, eta aukeratu*

*egin zuten. Helburua, haurrak liburuak irakur-  
tzera bultzatzeko txoko goxo bat egitea izan da.*

**L**ila, berde eta salmoi kolorez margotutako  
paretak beste itxura ematen dio liburutegiko  
haurren gelari. Kolore eta irudi horiek zer-  
gatik aukeratu dituen galdetu diogunean, lehia-  
ketako arduradunekin hitz egin ondoren maskota  
margotzea erabaki zuen. "Maskota hori zuhaitza,  
etxea eta itsasontzi batean agertzen da. Horrezaz  
gain, alfabetoko letrak azaltzen dira paretaren  
beheko aldean" azaldu digu Beñatek.

Udalaren lehiaketa horretara aurkeztu aurretik  
beste lehiaketa batzuetan hartu du parte Beñatek.  
Arte ederretan lizentziatutako gazte hau irakasle  
izateko ikastaroa egiten ari da egun. Horrezaz  
gain, alemana ikasten eta Aita Manuel Larramendi  
ikastolan praktikak egiten ari da.



*Beñat Arregi margotu du gela*

# XOSÉ MANUEL BEIRAS ANDOAINEN

## Galizia izan zuen mintzagaia

*"Politika Plazara" hitzaldi sortaren barruan, Xosé Manuel Beiras izan zen urtarrilean.*

*Beirasek, Galiziarentzat Estatu politika bat finkatzearen garrantziaz mintzatu zen.*

1982. urtean sortutako Bloque Nacionalista Galegoko presidentea den Xosé Manuel Beiras zenbait termino eta definizioen arteko desberdintasuna azaltzen saiatu zen hasieratik, eta azpimarratu zuen Galiziaren ezaugarri konkretuengatik, beste herrialdeetan arrakasta izan duen politikak ez duela zer eginik Galizian. Nazioa eta Estatua kontzeptu politiko desberdinak direla abiapuntu izanik, Espainia nazio bat baino gehiagoz osatutako Estatua dela adierazi zuen: "Estatuaren aurrean, Galizia, Katalunia eta Euskal Herria biru autonomia dira, baina Galiziak baditu zenbait ezaugarri beste bietatik bereizi egiten dituenak. Horrela, Galiziaren bilakaera historikoak, Galizia beste bietatik desberdina biltzen du". Galizian nazionalis-



*Xosé Manuel Beiras BNG-ren egoeraz mintzo zen*

moa garatuko duen burgesiaren gabezia, alegia, Galiziak bestelako bilakaera izatea baldintzatu duela azpimarratu zuen. Horregatik, beste ereduaren adibideak alde batera utzita, testuinguru jakin horretan eta egungo egoerarekin bat datorren estatu politika bat finkatu

behar dela azaldu zuen: "BNG ezin da konparatu Euskal Herriko alderdi politiko jakin batekin. Gure alderdiaren izaera Galiziaren egoerara baldintzatuta dago, eta ez da kanpoman bilatu behar parekorik. Horrek ez du zentzurik, eta bori egiten duenak ez du politika egokirik egiten". Horrezaz gain, krisi ekonomikoa, autonomia, estruktura europearra eta askatasuna ere aztergai izan zituen bere hitzaldian. Duela hamabi urte baino askatasun gutxiago dagoela adierazi zuen, besteak beste.

## MUSIKA EMANALDI UGARI

### Hilabetero musika emanaldiak izango dira

*Andoaingo Kultura batzordeak antolatuta, hala herriko musikariak nola euskal musikarien emanaldiak bultzatzeko emanaldiak izango dira.*

*Hilean behin eskainiko dira musika emanaldiak.*

Urtarrilean hasi eta maiatza bitartean musika emanaldi asko eskainiko ditu Kultura batzordeak. Lehen, urtarrilaren 30ean eginikoa izan da, eta Junkal Guerrero eta Mikel Sukunzaren musika barroko estiloko kontzertua izan da. Otsailaren 21ean, Donostiako kontserbatorioko akordeoi emanaldia izango da, eta bertan, bost andoaindarrek joko dute esku-soinua San Martin elizan, arratsaldeko 20:00etan. Otsailean ere, hilaren 22an, euskal musikaren egitaraua jarriko da martxan, eta maiatza bitartean, hilero, kantari ezberdinen emanaldia izango dugu entzungai herrian. Otsaileko gonbidatua Imanol kantaria izango da, eta bere musika emanaldia La Salle antzokian izango dugu entzungai, arratsaldeko 20:00etan.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa  
fundación*

### VIDEO CLUB AMETS



Bideo zintak alokatzen dira  
CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA





# IDAZKARI BERRIA

**Begoña Bueno hogeita sei urteko beasaindarra, Asteasu eta Larraulgo idazkari izango da hemendik aurrera. Zuzenbiden lizentziatua eta administrazio publikoan diplomatua den gazte honek, esperientzia handia du antzeko lanetan, eta esan digunez, oraingoz oso gustura dago herritarrekin.**

**Aiurri:** *Non aritu zara lanean orain arte?*

**Begoña Bueno:** *Diplomatu ondoren Zaldibian aritu nintzen praktika batzuk egiten. Ondoren, idazkari kontu-bartzaile gisa, Hondarrabian eta Ibarrran aritu naiz lanean.*

**Ai.:** *Zein lan egin beharko dituzu Asteasu eta Larraulen?*

**B.B.:** *Larraulera ostegunetan bakarrik joango naiz. Goizeko zortzi t'erdietatik arratsaldeko hirurak arte edo arituko naiz lanean egunero, iluntzetan egingo diren udalbatzarretara eta bileretara agertzeaz gain. Abolkua eman, aktak jaso eta finean, udalaren ekimen eta erabaki ia guztiak ikuskatuko ditut.*

**Ai.:** *Zuzenbidean lizentziatu ondoren, ez al zenuen abokatu gisa lan egitea pentsatu?*

**B.B.:** *Pentsatu bai, baina abokatu gebiegi gaude, eta beraz, ez dago guztiontzako lanik. Administrazio publikoan berriz, ni adibidez, leku batetik bestera nabil, lan-*



**Begoña Bueno**

*postu batetik bestera; oso zaila da esparru honetan lan finko bat aurkitzea. Idazkari titularra izateko, behinbetikoa alegia, oposaketak gainditu behar dira. Ni lizentziatu naizenetik ez da oposaketarik egin.*

## PLATER-TIROKO ZELAIA ITXI EGIN DUTE

- Arau subsidiarioen aurkako iharduera dela dio udalak
- Oniritzi guztiak dituztela, udalaren baimena izan ezik, diote zelaiaren jabeek

**Andazarate ganean dagoen plater-tiroko zelaia, Izurtzu jatetxearen ondoan dagoena hain zuzen, itxi egin dute. Duela urte t'erdi jarri zuten martxan zelai hori, eta berehala kexatu ziren herritarrak bertako ihardueraren ondorioz. Beraz, eta udalak iazko maiatzean lizentzia ez ematea erabaki zuenez, azkenean, plater-tiroko zelaia itxi egin behar izan dute. Zelaiaren jabeen esanetan, ordea, plater-tiroko iharduera egiteko beharrezkoak diren oniritzi guztiak dituzte, udalaren baimena izan ezik.**

**U**dalak iazko maiatzean erabaki zuen plater-tiroa egiteko lizentzia ez ematea. Hala ere, eta hala Osakidetzak nola Eusko Jaurlaritzak eginitako azterketek iharduera ontzat jotzen zuten, eta gainera, jabeek udalaren erabakia errekurri-



**Jabeek zelaia ireki nahi dute**

tu egin zuten, funtzionamenduan egon da plater-tiroko zelaia orain gutxi arte. Aipatu behar da, ordea, Eusko Jaurlaritzak iharduera arrisku-tsua eta kutsakorra izan ez zedin, zelaiaren zenbait aldaketa egitea proposatzen zuela. Abenduan, udalak iharduera hori herriko arau subsidiarioen aurka doala uste duelako, hilabeteko epea eman zioten jabeari plater-tiroko zelaia ixteko.

Ondorioz, plater-tiroko zelaia itxita dago urtarrilaz geroztik. Izan ere, udalak bakarrik du plater-tiroko zelaiari baimena emateko edo ez emateko kompetentzia.

**"Udalaren baimena falta zaigu"**

Plater-tiroko jabeen esanetan, Diputazioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernadore Zibilaren oniritzia dute beren iharduerarekin aurrera jarraitzeko: zelaiak iharduerarekin aurrera jarraitzeko baldintza guztiak ditu. Gainera, plater-tiroko zelaiaren sortzen den soinua neurtu egin dute, eta soinua legearen barnean sartzen da. "Udalaren baimena bakarrik falta zaigu, eta hori lortzeko ahaleginetan gabiltza", esan digute zelaiaren jabeek. Bien bitartean, ordea, zelaia itxita egongo da.

## INDUSTRIETAKO HONDAKINAK NORA?

### Olioak eta pinturak dira sortzen dituzten hondakin kutsakorrenak

*Billabona, Zizurkil, Asteasu eta Adunako enpresek zein hondakin egiten dituzten eta nora botatzen dituzten aztertu berri dute. Oraingoz, enpresen iharduerei buruzko datu batzuk besterik ez dituzte bildu, eta horiek aztertu eta gero udalek neurriak hartuko dituzte. Eusko Jaularitzaren dirulaguntzaren bitartez egin duten ikerketa horretan, enpresek beren hondakinak era egokian ezabatzeko informazioa jaso dute.*

ondorioz esan liteke olioak hondakin gisa ongi ez dela biltzen eta makinak ongi ez direla zaintzen. Bestalde, enpresek pintura eta disolbaltzaileak ez dituztela biltzen erantzun dute. Izan ere, hondakin horiek ebaporatu edota berrerabili egiten dituztela esan dute. Txatarra berriz, txatarreroak biltzen du, eta papera, kartoia eta plastikoa kantidad handitan erabiltzen duten enpresek bakarrik birziklatzen dute. Gainerako lantokiak zaborretara bota, erre edota kartoizaleek jasotzeko uzten dute hondakin hori.


#### Informazioa eskaini

**B**illabonan 45 enpresa aztertu dituzte, eta bi enpresek bakarrik egin diote muzin azterketari. Lehen aipatu bezala, olioak eta pinturak dira sortzen dituzten hondakin kutsakorrenak, eta olioak, kotxeak konpontzen dituzten lantokietan behinik behin, era egokian biltzen dute. Hala ere, olioak, txatarraren gainera botatzen duenik ere bada, baita zirkuitu itxian olioak berrirerabiltzen duenik ere. Berrerabilpena egitean olioak galdu egiten da bai makinarian gelditzen delako bai lurrundu egiten delako, eta beraz, garrantzitsua da olioak herritzea. Horren guztiaren

ikerketa burutu dutenek, ahalik eta hondakin gutxiago sortzeko, enpresei informazio eskaini behar zaiela uste dute. Horrela, papera eta antzekoak non eta nola birziklatu jakingo lukete. Era berean, olio hondakinak era egokian erabiltzeko informazioa banatzea eta egun nola eta non botatzen dituzten kontrolatzea proposatzen dute. Gauza bera egitea proposatzen dute pintura eta disolbaltzaileekin, izan ere, eta nahiz eta enpresek esan hondakin horiek ez dituztela sortzen, beste herrietan erreketara botatzen baitira.



*Hondakinak era egokian bideratu ingurugiroa zaintzeko*



### KOLDO UNANUE LOPEZ

Urtarrilaren 24ean hil zen, Donostian.

Bere sendiak eskerronik beroena adierazi nahi dizue Koldoren heriotzaren dolu-minean lagun izan zaituzten guztiei.

Donostia eta Urnieta, 1997, otsailak 2.

# AMAIA VAZQUEZ: "HAURRARI TXIKITATIK HITZ EGIN BEHAR DIOGU SEXUALITATEAZ"

*Fleming ikastetxeko guraso elkarteak antolatuta, bi hitzaldi eman ditu Amaia Vazquez sexologak Arroa auzoko eskoletan. Bi hitzaldiek haurren sexualitateaz jardun dute: zero urtetik sei urtera arteko sexualitateaz lehenengoa,*

*eta zazpi urtetik hamabi urte bitartekoaz bigarrena. Guraso asko joan dira hitzaldiak entzutera nola bertan parte hartzera, eta ohikoa den bezala, gizonezkoak baino emakumezko gehiago agertu dira hitzaldietara.*

“Zazpi urtetik hamar urtera arte, haurrak lasaitasun emozional handia bizitzen du”, adierazi zuen Amaia Vazquézek. Horren ondorioz, haurrak ordura arte izan dituen aldaketa handiak eta gora beherak orekatu egiten dira piskanaka piskanaka: “esate baterako, haurra gutxiago masturbatzen da adin horretan. Izan ere, irakurtzen eta idazten ikasten du etapa horretan, eta horrek, gauza berriak deskubritzera bultzatzen du”. Bestalde, adin horretan jakiten dute sexualitatea haurrak edukitzeko baino zerbait gehiago dela, “sexua plazerra sentitzeko, komunikatzeko eta harremanak edukitzeko dela azaldu behar diegu adin horretan”. Amaiaren esanetan, sexualitatearen nola gizartearen baloreak transmititzeko eta barneratze-ko etapa da haurraren adin tarte hau, baina beren hizkuntzan hitz egin behar zaie haurrei gaiaren inguruan, ipuinak eta antzekoak erabiliz. “Etap horretan ikasten dute haurrek sexuari buruzko hainbat terminologia, gizartean erabiltzen dena. Horietako hitz askok kutsu matxista eta sexista izaten dute, eta guk, guraso eta irakasleok, terminologia zuzena zein den erakutsi behar diegu”, esan zuen Amaiak, hizkuntza mota bakoitzak atzetik ideologia konkretu bat duela gogoraraziz.

### *Komunikazioa, galdu egiten den trena*

Haurrak hamabi urte inguru dituenean, pubertatean sartzen da. Haurrak aldaketa fisiologiko, psikologiko eta sexual handiak izaten ditu garai honetan, eta aldaketa horien guztien ondorioz, haurra nahikoa errebelde

bihurtzen da. “Haurrek gaizki pasatzen dute urte horietan, eta beraz, garrantzitsua da beraiekin ongi komunikatzea. Baina horretarako, noski, aurretik komunikazio maila ona eduki behar dugu eurekin”. Mutilak, gainera, pubertateko marginatuak direla esan zuen Amaiak, neskekin baino gutxiago hitz egiten baita sexualitateaz garai horretan. Gainera, gai berrietaz hitz egiteko garaia dela esan zuen Amaiak: pornografia, IHESa, abortoa eta antzeko gaietaz hain zuzen, “kalean entzuten eta ikusten dituzten gaiak baitira”.

Hitzaldia, guraso eta irakasleen arteko harremanak indartzearen beharraz, haurrei gauzak nola azaldu argituz eta gurasoen galderak erantzunez eta eztabaidatuz bukatu zuten.



*Amaia Vazquez. Sexologa*

**SOTO**  
eletrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g. BILLABONA  
☎ 69 11 73

*Ageliseritza*  
**USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

**HERCULES**  
Aseguruak ARGENTARIA


*Amaia Kortajarena*

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxa 39 37 34  
**ZIZURKIL**

# ESKOLA BERRITUKO DUTE

**20 milioi pezetako dirulaguntza emango du Diputazioak**

*Zizurkil goiko eskola, San Millan ikastetxea hain zuzen, berritu beharra dago. Urteak dira eskola egin zenetik, eta harrez gero ere ez da eskola berritzeko eta txukuntzeko lan handirik egin. Ondorioz, eta Diputazioak lanen kostuak ordaintzeko 20 milioi pezeta emango dituenez, eskola goitik behera berrituko dute.*



*Eskola goitik behera berrituko dute*

**D**iputazioak dirua emango duen arren, udalak burutuko ditu eskola berritzeko egin beharreko lanak. Aspaldiko ideia da ikastetxea berritzea, eta beraz, garai batean egin zuten proiektua eguneratu besterik ez dute egin behar lanak egiten hasteko. Egingo dituzten lanak nagusienak, besteak beste, teilatua berritzea, eta behar bada, beste solairu berri bat egitea izango dira. Bestalde, San Millan ikastetxeko arduradun eta gurasoekin hitz egin ondoren zehaztuko dute lanak nola eta zein egunetan egin.

## "EMAKUMEA ETA OSASUNA" IKASTAROA

**Amaia Vazquez sexologak emango du ikastaroa**



*Emakumeen papera gizartean aztertuko dute*

*Otsailaren 19an hasi eta apirilaren amaieran bukatu da emakumearen osasun fisikoa nahiz sikikoa landuko duen ikastaroa. Amaia Vazquezek emango du ikastaroa, eta erdaraz izango da. Kultur Etxean asteazkenero, arratsaldeko hiruetatik bostetara, euren osasuna eta bizitzari buruz hitz egiteko zita izango dute emakumeek.*

**E**makumearen osasunaz hitz egiteaz gain, sexualitateaz eta emakumeak gizartean betetzen duen paperez ere jardungo dute ikastaroan. Kultur Etxeko arduradunak esan digunez, aurretik ere egin zuten antzeko ikastaro bat, autoestimari buruzkoa hain zuzen: "Lehenengo ikastaroak eduki zuen arrakastaren ondorioz erabaki dugu ikastaro berri hau egitea; eskacra handia dagoelako, alegia".

### *Yoga ikastaroa*

Astearte eta ostegunetan berriz, arratsaldeko hiru t'erdietatik bostetara, lasaitzeko eta ariketa fisikoa egiteko yoga ikastaroa hasiko da Kultur Etxean. Maria Eugenia Ramos, iluntzetan ere yoga ikastaroa ematen duena, izango da irakasle.

Andoain

# TXERTOTA, SAGARDOTEGIA ETA NEKAZALTURISMOA

Otsailaren 7an ireki ditu lehenengoz ateak

*Txertota orainarte Goiburu auzoko baserria izan da. Orain, baserria izateaz gain, sagardotegia eta nekazalturismo bihurtu da eta Jauregi familiko kideak izango dira lan horretaz arduratuko direnak.*

Astebete baino ez da ireki dutela baino jada pertsona asko dira bertara gerturatu direnak. Sagardotegian, 150 pertsonentzako lekua dago eta bi solairutan banatuta dago. Goiko solairuan, host kupel eta janlekua daude, eta behean berriz, lau kupel eta sagardoa egiteko makineria jarri dituzte.

Sagardotegia zergatik ireki duten galdetu diegunean Jokin Jauregiren erantzuna zera izan da: *"Betidanik egin izan dugu sagardoa etxean eta beraz ez dugu egun batetik bestera hartu sagardotegia irekitzeko erabakia. Badira hiruzpalau urte sagardotegia irekitzea pentsatu genuela eta azkenean errealitate bihurtu da gure asmo hori. Hasieran, otsailetik abuztu bitartean irekiko dugu. Gero-rako planik oraindik ez dugu egingo".*

**Famili arteko lana**

Baserria familiakoek eraberritu dute eta familiakoak izango dira bertan lan egingo dutenak. Egurra eta

harria erabili dute gehienbat, baserriaren itxura mantendu nahian. *"Baserri itxura mantendu nabi izan dugu eta horretaz gain, guk egin nabi izan ditugu obrak nagusienak. Gustora gaude egin dugun lanarekin".* Sagardotegiaren ordutegiari dagokionez, hasiera batean egunero irekiko dute. Astegunetan, egunero, gauez irekiko dute eta asteburuetan berriz, eguardia eta gaucan, igande gaua izan ezik.

**Nekazalturismoa**

Sagardotegiaz gain, nekazalturismoa ere izango da eta Aste Santuan edota apirillean irekitzeko asmoa dute. *"Otsailean irekitzekotan egon*

*gara baina gebiegi gerta ez zedin zertxobail beranduago irekitzea hobe zela pentsatu dugu".* Sei gela ditu guztira, bakoitza bere bainugelarekin. Gelak aldez aurretik erreserbatzea gomendatzen dute Jauregitarak.

Azken urtetan nekazalturismo etheen kopuruak gorantz egin duen arren, Andoainen, irekitzen den lehen izango da Txertota. *"Sagardotegia eta nekazalturismora datozenentzat, aparkatzeko arazorik izan ez dezaten kotxeen parkina jarri dugu. Horrezaz gain, taberna txiki bat ere badugu, eta hori guztia jendearen gustokoa izango dela espero dugu".*



150 pertsonentzako lekua dago

**EMBUTIDOS ORMAKI URDAITEGIA**

TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162  
ANDOAIN

**BENITO**  
HARATEGIA URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50  
BILLABONA

## DORRETXEAK, GARAI BATEKO HISTORIA EZAGUTZEN

**Garaiko egoera sozio-politikoa eta historikoaren isla dira**

*Herriko dorretxeen inguruan datu eta informazio gehiegirik ez dagoen arren, aski ezagunak dira Andoaingo dorretxeak. Txiki-txikitatik ikasi ditugu dorretxe horien izenak, kokapenak eta datuen bat edo beste. Jarraian irakurriko duzuen batzuentzat ikasitakoa gogoratzeko balioko du; beste batzuek berriz,*

*ikusi eta bizitzeko aukerarik izan ez zuten Andoaingo historiaren atal bat ezagutzeko aukera izango dute. Egun, batzuk desagertu egin dira, eta beste batzuk, nahikoa egoera txarrean daude. Azelain, Bazkardo, Berrozpe, Isturitzaga, Leizaur eta Sarmendi dira Andoaingo dorretxeak.*

**E**rdi Arokoak dira Andoaingo sei dorretxeak. Guda eta lis-kar garai horietan dorretxeak bando batekoak edo bestekoak izaten ziren, baina guztien funtzioa herria defendatzea zen; horra hor, beren kokaleku eta elementu arkitektonikoen arazoia. Toki estrategikoetan zeuden dorretxeak, eta beren leiho eta sarrerak borroketatik babesteko eginda daude. Sei dorretxeak, Andoaingo puntu estrategikoetan eta elkarrengandik urrun egon arren, beraien artean komunikatzeko sistema bat eratu zuten. Horrela, denbora gutxian, eta etsaia iritsi aurretik, defentsarako armagizonak prestatzen zituzten. Honako hau da, banan bana, dorretxe bakoitzaren historia laburra.

### **AZELAIN**go etxea

Sorabilla auzoan zegoen eta garai batean Andoaingo garrantzitsuenetakoa bat izan zen. Izan ere, bertakoa zen Oria ibaia igarotzeko zegoen zubi bakarra. Zubi honen inguruan badira hamaika kondaira, eta horietan guztietan harri baten falta azpimarratzen da. Gainera, Aiztondo bailaran hamaika auzi sortu ziren zubia igarotzeko eskubideak zirela eta. Etxe horretan Gipuzkoakoa zen lehenengotako familia bizi izan zen, eta leinu hori Sorabillan ahaidetu zen. Gudetan

Oñaz bandoan hartu zuten parte. Dorretxearen aurrekaldean harriz egindako armarriaren inguruan (Larreta deiturikoa) ere bada zer esanik. Jauregia suntsitu ondoren, bere jabeek armarría Asteasura eraman zuten, berriro, noiz-bait, Sorabillara bueltatzeko asmotan. Baina 1.982. urtean desagertu egin zen. Egun, Sorabillako San Martin parrokiari, armari horren bi erreproduzio polikromatu aurki daitezke. Tamalez, egun, dorretxe hori galduta dago Irun-Tolosa bariantea egiterakoan bota egin baitzuten.


### **BAZKARDO**ko etxea

Donostiatik Tolosarako bidean zegoen Bazkardo dorretxea. Armarrian azaltzen ziren San

Andres gurutzeak, Baezako gatazkan mairuen aurkako garaipenaren isladatzat hartu ziren 1.227. urteko San Andres eguncan. Leku zelaitzuan zegoen kokatuta dorretxea, eta inguruan erretena zuela dirudi. Erasoen aurrean, erretena urez bete eta etsaiak aurrera ezin eginik geratzen ziren. Azelaingo etxearen antzera, Bazkardo etxea desagertu egin zen. Hain zuzen ere, 1.991. urtean bota zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bazkardoko bidegurutzeko lotura egitean.

### **BERROZPE** etxea

Buruntza auzoan eta Urnietatik Andoainera datorren errepidearen alboan, Kaletxiki auzoaren bukaeran, Berrozpe dorretxea



**BERROZPE** etxea



**LEIZAUR (Jauregi)**

dago. Bere kokapen estrategikoa dela eta, Hernani aldetik zetozen erasoaldietatik defendatzen eta babesten zuten herria. Bazkardoko etxearen antzera, erretena zuen inguruan, eta erasoaldietan urez betetzen zuten. Berrozpe etxea gertakari garrantzitsu bategarako aukeratu izanak, bere garrantzia handia izan zela adierazten digu: 1.379. urtean Andoainek Donostiarekin batu behar zuela dekretatu zuten, baina ezagutzen ez diren arrazoiengatik, Andoainek Tolosari lotzea erabaki zuen 1.475. urtean. Horren ondorioz, sortutako liskarrak konpontzeko bilera bat egin zen Berrozpe jauregian. Bertan, Donostiako alkateak, Amador Ochoa de Olazabal jaunak, eta Tolosako alkateak, Domejon Gonzalez de Andia jaunak, hartu zuten parte. Bi herrien arteko bakea erabaki ondoren, Andoain, Aduna eta Alkiza Donostiako hiriari lotu zitzaizkion.

### ISTURITZAGA etxea

Karrikan dago, eta bere kokapen estrategikoagatik, Tolosatik datorren bidea kontrolatzea zen bere funtzio nagusia. Herritar gehienek Isturitzaga izenarekin ezagutzen duten arren, esan beharrezkoa da etxe horretako lehenengo biztanleak Isturitzaga leinukoak zirela, eta ondorioz, izen hori hartu zuen etxeak. Etxe honen inguruan ez da asko idatzi, baina jabeek adierazi dutenez, herri

osoko eraikuntza zaharrena da. Horren adierazgarri Isturitzaga barruan mairuak preso eduki zituzteneko ziegak dira.

Gainerako dorretxeen antzera, XII. eta XIII. mendean defentsarako dorre izan zen, eta ondoren, Enrike IV.ak aginduta, dorretxearen dorrea kentzeko dekretua plazaratu zenean, dorrea jauregi bihurtu zen. Isturitzaga etxea Monumendu Arkitektoniko Nazionala deklaraturik dagoen arren, nahikoa egoera txarrean dago kontserbatuta.

### LEIZAUR etxea

Jauregi izenez ezagutzen den dorretxea, Kaleberrian dago, Leitzaran ibaiatik gertu. Gerrate

garaiaren onaztarren alde egin zuten etxe horretako bizilagunek, eta borroka horietan, hirigunea defendatu zuten batik bat. 1.457. urtean, dorretxeak bota beharra dekretatu zutenean, dorretxeak itxuraldaketa handia jasan zuen, baina bere iharduera ekonomiko nagusiek nekazaritza eta abeltzaintza izaten jarraitu zuten. Jauregi bihurtu ondoren, jauna bere familiarekin batera bizi izan zen bertan. Azpimarratzekoa da ere garai hartako Santa Krutz baselizararen jabea zela Leizaur etxea.

### SARMENDI etxea

Berrozpe eta Bazkardoko etxeen artean dago, eta Oria ibaiaren bazterretik, Buruntza menditik eta Urnietatik zetozen erasoak kontrolatzea izan zen bere funtzio nagusia. Sagarmendi izenarekin da ezaguna, baina agiri zaharretan Sarmendi baino ez da azaltzen, eta agian Sarmendi izenak bere kokalekuari erantzungo lioke. Eraikuntza hiru solairutan banatuta zegoen: behe solairuan, sukaldea, ikuiluak eta logelak zeuden; lehen solairuan, logela gehiago, eta azken solairuan berriz, nekazal produktuak gordetzeko gela zen. Azpimarratzekoa da ere Martin Garagorri, Aita Manuel Larramendiren anaia, etxe horretara joan zela bizitzera. Harrez gero, Garagorri izenez ere ezagutzen da etxe hau.



**SARMENDI etxea**

## AIURRIKO KOMIKILARIAK

### Iñaki Gozalo Erro eta Ramón Bernaras marrazkilariek hilero marrazten dute aldizkarian

*Iñaki Gozalo Erro, Wentxi, 28 urteko andoaindarra da. La Sallen Lanbide Heziketako ikasketak bukatu ondoren, diseinu grafikoa ikasten jardun du azken bost urteotan Donostian. Egun, Usurbilgo ADG izeneko enpresan egiten du lan, diseinu grafikoan, hain zuzen ere. Euskaraz hitz egiten berak uste duena baino gehiago dakien arren, komikietako gidoiak egiteko euskara ongi ez menderatzea oztopo dela esan digu.*



*Iñaki Gozalo Erro*

**Aiurri:** *Aiurrin bilero egiten duzun komikiaz gain, zuk eginiko kartel eta marrazki gehiago ikus daitezke, batez ere, Andoainen. Antzeko lan asko egiten al dituzu?*

**Iñaki Gozalo Erro:** *Bai, logotipoak, kamisetak, kartelak,... horrelako gauzak osatzeko ilustrazioak egiten ditut. Andoaingo jendeak eskatuta egiten ditut lan gehienak, jende ezagunak eskatuta, alegia. Andoaingo Ganbara tabernako kontzertuak eta ekintzak adierazteko, adibidez, kartel bat egiten dut bilero. Bestalde, ni ez naiz komikilaria, baina da, ilustrazioak eta marrazkiak egiteko igaro naiz komikiak egitera.*

**Ai:** *Zenbat denbora daramazu marrazten? Eta non ikasi dituzu marrazteko ikasi beharrekoak?*

**I.G.E.:** *Umetatik margotzen dut, gaztetatik egin izan ditut gaztetxeko kartelak, kamisetak eta horrelakoa. Komikiari buruzko ikastaro bat egin nuen Lasarten, baina ikasi dudak gehiena nire kabuz ikasi dut: irakurri, ikusi eta ikasi, alegia.*

**Ai:** *Zein da Aiurriko komiki bat egiteko jarraitzen duzun prozesua?*

**I.G.E.:** *Zailena zer marraztu behar dudak pentsatzea da, ideia pentsatzea. Behin ideia pentsatuta,*

*hori marrazten basten naiz. Zailena, ordea, marrazkiari jarri beharreko esaldiak pentsatzea da. Nabia dut marrazkia bakarrik egitea, euskara ez dut oso ongi menderatzen eta hori oztopo bat da komikiari bitza jartzeko.*

**“Zailena zer marraztu behar dudak pentsatzea da”**

**Ai:** *Komikiak, gainera, bitz askorik gabe asko esaten du, ezta?*

**I.G.E.:** *Hitzik erabili gabe gauzak adierazteko aukera ematen dizu komikiak. Irudi batek bakarrik nahi duzuna adierazteko aukera ematen dizu. Nik nabia dut irudia erabiltzea bitza jartzea baino.*

**Ai:** *Zein gai ukitzen dituzu zure komikietan?*

**I.G.E.:** *Gai sozialak. Hemengo arazoak ukitzen ditut, batik batik: ekologia, gizartea,... Hemengo gazte bati gertatzen zaizkion gauzak adierazten ditut. Pertsonaia bat asmatu dut nire komikietako protagonista*

*izateko, eta pertsonaia, hemengo gazte baten islada da. Gainera, nabikoa ukitu pesimista izaten dute nire komikiek.*

**Ai:** *Euskal Herrian komikiak irakurtzeko eta egiteko ohitura-rik ba al dago?*

**I.G.E.:** *Lasarten ikastaroa egin genuenok Komik III! aldizkaria ateratzen genuen lehen, gaur egun, ordea, desagertu egin da aldizkari hori. Napartheid da Euskal Herrian euskaraz ateratzen den komiki bakarra, nabiz eta haurrentzako aukera gehiago egon. Erdaraz komiki gehiago daude, eta gainbeheran doan esparrua baldin bada ere, komikiak zutik jarraitzen du. Izan ere, komiki gutxi erosten da, baina tabernetan adibidez, jende asko aritzen da komikiak ikuskatzen. Komikiak jarraitzaile finko batzuk ditu, nabiz eta asko ez izan.*

## Loitzo

LANPARAK  
KOLTZOIAK
ALTZARIAK  
OPARIAK

Errota kalea, - 3 69 21 35 BILLABONA



Ramón Bernarásék ere 28 urte ditu, eta Billabonakoa da. Lanbide Heziketa eta lorazain ikasketak egin ditu, eta Donostian lorazain gisa lanean aritu ondoren, egun, langabezian dago. Umetatik marrazten du, eta ez asperetzeko edota denbora pasatzeko egiten duela esan digu.

**Aiurri:** Zurea ere, margotzea alegia, umetako afizioa al da?

**Ramón Bernarás:** Bai, txikitatik margotzen dut. Oinarrizko bezkuntza orokorra egiten ari nintzela basi nintzen marrazkiak egiten, klasean ez asperetzeko.

**Ai.:** Ikastarorik egin al duzu?

**R.B.:** Ez, ez dut inolako ikastarorik egin. Nire kabuz ikasi dut marrazkiak egiten, eta orain, pintzelarekin marrazten ikasten ari naiz; asko gustatzen zait pintzelarekin marraztea. Bicente Ameztoi margolariak asko laguntzen dit borretan.

**Ai.:** Zein material erabiltzen dituzu marrazkiak egiteko?

**R.B.:** Komikiak egiteko errotuladoreak, boligrafoak eta arkatzak erabiltzen ditut. Beti eramaten dut soinean boligrafo bat, edozein txokotan hasten naiz marrazkiak egiten. Muralak edo marrazki handiak

**“Edozein txokotan hasten naiz marrazkiak egiten”**


egiteko berriz, pintura, pintzelak eta antzekoak erabiltzen ditut.

**Ai.:** Aiurriko komikiak gain, beste-lako marrazki asko egiten al duzu?

**R.B.:** Komikiak Aiurrirako basi nintzen egiten. Nik, orokorrean, marrazkiak egiten ditut, eta gebienbat, paisaiak marrazten ditut. Bestalde, gaztelverako logotipoak, kamisetak eta gauza gebiago marraztu izan ditut.

**Ai.:** Komikiak egiteaz gain, komikiak irakurtzeko zaletasunik ba al duzu?

**R.B.:** Komiki ingelesak irakurtzen ditut hemengo komikie-



Ramón Bernarás

taz gain, eta egia esan, ingelesak dira hoberenak. Teknika ona eta ugaria erabiltzen dute, ordenagailua, esate baterako, asko erabiltzen dute komikiak egiteko.



CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

OTSAILA, IKASLEEI  
ESKEINTZA: ARMAZOIA  
ETA KRISTALAK  
7.500 pta.

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN  
☎ 59 18 17



ogi berezi eta  
artesanak  
...  
etxerainoko  
zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.

Lizarra-etxea, 32 / Elizmendi auzoa.  
20159 ASTEASU/☎ 683292 - 691896

**OGI • GOXO**



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK  
• TEILAK-ZIGARRILOAK  
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA



AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA

**IRAOLA**

ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37  
Tlf. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
20150 BILLABONA

# LARRAMENDI BAZKUNAREN BILTZARRA

**Aiurrik, urtean, bi mila pezeta balioko du**

*Otsailaren lehenean bildu ziren Andoaingo kultur etxean Larramendi Bazkuneko kideak. Aiurri aldizkariari buruz Siadecok eginiko inkestaren datuak azaldu, ondorioak atera eta aldizkariaren etorkizuna ziurtatzeko neurriak hartu zituzten batzarkideek. Erabaki horietatik aipagarriena, Aiurri ekainetik aurrera ordaindu egin beharko dela da: 2.000 pezeta urtean.*



*Aiurri-ri buruzko biltzarra*

**L**arramendi Bazkuneko lehendakaria den Jon Unanuek azaldu zituen Siadecok eginiko inkestaren datuak. Daturik aipagarriena, jendeak Aiurri gustura, erraz eta maiz irakurtzen duela izan da. Era berean, Larramendi Bazkunak aurreko Biltzar Nagusian agertu zituen kezka batzu argitu dira inkestaren bitartez: Aiurri egin eta banatzen den eremu geogra-

fikoa egokia dela, alegia. Hala ere, jendea aldizkaria ordaintzeko prest ote dagoen ez da oso argi gelditu. *"Baina beste irtenbiderik ez dago. Aiurri ordaintzen basteak duda asko sortzen dizkigun arren, ordaindu beharra dago aldizkaria ateratzen jarraitu abal izateko"*, esan zuten bazkideek. Izan ere, Bazkuneko idazkari den Xabier Irisarrik iazko

diru-kontuak eta urte honetarako aurrekontua azaldu zuen, eta zorra uste baino txikiagoa izan den arren, Aiurri argitaratzen jarraitu ahal izateko ordaindu egin beharko dela garbi azaldu zuen. Azkenean, eta dudamunduan bada ere, ekainetik aurrera Aiurri ordaindu egin beharko dela erabaki zuten.

## *Larramendi Bazkuna ezagutzera eman behar*

Bestetik, eta inkestaren arabera, jendeak ez daki Aiurri aldizkaria Larramendi Bazkunak argitaratzen duenik. Gainera, merkatariei eginiko inkestaren arabera, denda askotan ez dute aldizkaria jasotzen, eta ondorioz, publizitatea egiteko oztopo da hori. Hori konpontzeko publizitate kanpaina egitea eta Larramendi Bazkuna ezagutzera emateko ekimenak antolatzea erabaki zuten.

Beraz, hemendik gutxira, ahalik eta harpidedun gehien lortzeko kanpaina bati ekingo dio Larramendi Bazkunak, eta Aiurrikoak saiatu ere saiaturiko dira harpide bakoitzari oparritxo bat ematen urte amaieran bere fideltasunagatik.

## *Aldizkari berria*

Aiurriko kazetariek bestetik, aldizkariak izango dituen berrikuntzak azaldu zituzten. Herritarren parte hartzea ugaritzeko eta herriko gorabeherak gehiago agertzeko moduan berrituko dute aldizkaria. Gainera, beharbada, orri gehiago izango ditu ekainetik aurrera.

**ALOTZ  
IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

**PATXINE  
JATETXEA**

GURE BEREZITASUNA: EUSKAL  
SUKALDARITZA ETA ETXENKO POSTRAK  
Errementari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU

**Jose Ramon**  
— TABERNA —

**PINTXO EDERRAK!!**

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

# BETERRIKO LIBURUA 1996

Otsailaren 28a, proposamenak bidaltzeko azken eguna

Beterri-Aiztondo eskualdeko herritarrek 1996. urtean argitaratu den euskal lan literario hoberena zein izan den proposatzeko aukera izango dute. Izan ere, eta Larramendi Bazkunaren ekimenez, iaz argitara eman ziren lan literario euskaldunen zerrenda banatu zaie herritarrei Aiurri aldizkariaren bitartez. Beraz, iaz argitaratutako libururen bat irakurri eta gozatu baduzu, txartela bete eta bidal ezazu, 96. urteko Beterriko liburua zein izan daitekeen proposatuz.

“B atetik, argitara ematen diren obren inguruan irakurtzaletasuna piztu edo bizkortuko duen giroa sortu nahi dugu herritarren artean. Bestetik, irakurleari berari hizpidea eskaini nahi diogu; ez da literatur kritikariaren iritzi edo balorazioa ajola zaiguna, irakurle soil batena baizik”, adierazi dute Larramendi Bazkuneko ordezkariak ekimen honen helburuei buruz. Herritar bakoitzak bi lan literario proposatzeko aukera izango du, eta jasoko diren proposamen guztien artean gailentzen den proposamena aukeratuko dute 1996. urteko



Beterri-Aiztondoko liburu gisa. Larramendi Bazkuneko bost kidek osatuko dute epaimahaia, eta nahikoa proposamen jasoko ez balitz bakarrik erabakiko lukete beraiek liburu garailea.

### Urtero egingo da

Martxoaren 15ean emango da jakitera liburu garailea zein izan den, eta aurkezpencan, obraren egileari bere lana 96.

urteko Beterri-Aiztondoko liburua izan dela dioen egiaztageria emango zaio. Behin ekitaldi hori egin ondoren, “aldian aldian argitara ematen diren liburuen gaineko zabalkundea eta promozio iharduerak antolatzen hasiko gara”, adierazi dute antolatzaileek. Izan ere, Beterri-Aiztondoko urteko liburua urtero egin nahi duten aipamen literarioa izango da.



**BORDA**  
*Jatetxea*  
A N D O A I N

**Oremendi**  
**Kirolak**

**AUKERA ZABALA**  
**KIROL ARTIKULUETAN**

**JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN**

**07SAB9**  
Etxebizitzen salerosketa

Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94  
BILLABONA

Zizurkil

## TXISTULARIEN KALEJIRA. 1959



**E**zkerretik eskuinera: Migel Mari Cardoso, Antton Mari Imaz eta Jose Luis Zaldúa

Gaur egun, diana egun batean bakarrik egiten da Zizurkil beheko jaietan, baina lehen, goizero goizero irteten ziren txistulariak jendea esnatzera. Txistularien atzetik dantzariak joaten ziren, eta txistulariekin batera, normalean, argazki ho-

netan ageri ez den mutiko batek danborra jotzen zuen. Jaietan jotzeaz gain, igande goizetan ere jotzen zuten txistua txistulari eskolako ikasleek. Gainera, herritik kanpora ere irteten ziren txistua jotzera, Donostira esate baterako.

Informazioa, argazkia eta bertakoen izen-abizenak Migel Mari Cardosok eman dizkigu.

## Karmele Otaegi.

### Andoaingo Udaleko artxibaria.



- Zein da zure lana?

Udalak bere eginkizunetan sortzen duen dokumentazio guztia antolatzea eta gordetzea, funtsean. Dokumentazio hori guztia arlo administratibo eta kulturean desberdindu daiteke, baina azkenean, dokumentazio hori guztia herritarrei zabaltzea da nire lana.

- Noiztik burutzen duzu lan hori?

Lehendik ere artxiboan lan egin arren, hiru urte daramatzat udaleko artxibari gisa. Momentu honetan, gainera, artxiboan lan egiteko laguntzaile bat dut.

- Zenbat pertsonak erabiltzen dute zerbitzua?

Iaz, adibidez, 860 kontsulta izan genituen artxiboan. Horietatik 623 udaleko langile edota zinegotziek eginiko kontsultak izan dira. Normalean, kontsulta bat egitera etorri obi da jendea, baina badira dokumentazioa uztea eskatzen dutenak ere. Argazkien eta boletinen kontsulta ere egiten dute. Bestalde, ikerketa lana egiten ari direnak eta bezkuntzako langileak dira artxiboa gebien kontsultatu dutenak.

- Zein informazio mota kontsultatzen da gebien?

Normalean zerbait zebaita galdetzen dute. Etxeko planuak zeintzu diren jakiteko edota garai batean herrian bizi izan zen norbait bertan bizi izan zela ziurtatzeko etorri obi da jendea.


- Noizkoak dira artxiboan dauden dokumenturik zaharrenak?

Lehen karlistadan artxiboa erre egin zen, eta garai hartako dokumentazio gutxi dago. Egun, artxiboan dauden dokumentu zaharrenak XVII. mendekoak dira, baina XIX. eta XX. mendeko dokumentuak dira antolatuta eta gordeta daudenak. Gai baten inguruko hutsuneak betetzeko beti arduratu gara dokumentazio hori bilatzen. Beraz, herriaren inguruko informazioa beste artxiboetatik lortzen saiatu gara.

- Zein proiektu dituzue 1.997. urterako?

1996 urtea oso emankorra izan da. Leizaur 0 eta 4 zenbakiak argitaratu, Ama Kandida alaba kuttun izendatu eta omendu eta Laborde enpresaren inguruko erakusketa egin dugu, besteak beste. Hurrengo urteetarako udaleko dokumentazioa informatizatu, artxiboaren erregelamendua onartu, argazki artxiboaren aurkibidea informatizatu eta 1998. urterako Leizaur 5 zenbakia argitaratzea dira gure lehen oinarritzko lanak.

## PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da oso, eta beraz, erreza izango duzue nor den asmatzea.

Saria bikaina da oraingoa ere: **Adu-nako Urritza sagardotegiak bi pertsonentzako afaria** eskaini digu oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzue-nok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

SAGARDOTEGIA  
JATETXEA

## URRITZA



## MUSIKA eta ANTZERKIA

### ZIZURKIL

**Otsailak 14:** Jazz Musika. Abele-  
txe aterpean, gaueko 22:30etan.

**Otsailak 21:** Ipuin kantu eta  
poema erotikoak. *Igurtzi nazazu  
berriro laztana* antzezlan. Abele-  
txe aterpean, gaueko 22:30etan.

**Otsailak 28:** *Lauganbara* Jazz  
taldearen musika emanaldia. Abe-  
letxe aterpean, gaueko 22:30etan.

**Obarra:** Ostiraletan afariak  
21:30ak arte emango dira. Larun-  
batero afalorduan pianojolea  
zuzenean.

## MUSIKA

### ANDOAIN

**Otsailak 21:** "Andoaindar  
*musikariak*" programaren bar-  
ruan Donostiako kontserbato-  
rioko akordeoi emanaldia. San  
Martin elizan, arratsaldeko  
20:00etan. (Susana Cencillo,  
Maria Gaston, Antonia Hurtado,  
Mari Fe Nogales eta Nere Uralde  
andoaindarrak).

**Otsailak 22:** "Euskal musi-  
*ka*" programaren barruan Imanol  
abeslariaren kantu emanaldia.  
La Salle antzokian, arratsaldeko  
20:00etan.

## IBILALDIAK

### ZIZURKIL

**Otsailak 15:** Orientazio ikasta-  
roa.

**Otsailak 16:** *Aiztondo* bailaran  
ibilaldia. Sagainzelai kobazulora  
bisita.

### BILLABONA

**Otsailak 16:** Aizkardi mendiza-  
le elkarteak antolatuta Artzan-  
buru eta Aizkorrira irteera.

**Otsailak 23:** Aizkardi mendiza-  
le elkarteak antolatuta fondoko  
eskia egitera joateko bidaia.

### ANDOAIN

**Otsailak 16:** Euskalduna Men-  
digoizale taldeak antolatuta  
Burbona, Oderiaga eta Gorbea-  
ra irteera.

## IKASTAROAK

### ADUNA-ZIZURKIL

**Eskulanak:** Eskulanak helduen-  
tzat. Adunan, larunbat arratsal-  
detan 17:00etatik 19:00etara.

Zizurkilen, Iriarte Etxean, ostiral  
arratsaldetan, 15:00etik 17:00etara.  
Izena emateko 693930 telefonora  
deitu.

## HITZALDIA

### ANDOAIN

**Otsailak 21:** Hizlaria Rafa Diez  
(LAB). Gaia "*Eraikuntza nazio-  
nala eta ELA eta LABen arte-  
ko elkarlana*". Kultur Etxean,  
arratsaldeko 20:00etan. Antola-  
tzaile: Andoaingo EAJ-PNV.

### LARRAUL

**Otsailak 18:** Julian Bereziar-  
tuak eskainitako "*Hezurretako  
gaitzak*" hitzaldia. Arratsaldeko  
19:00etan.

## ERAKUSKETA

### ANDOAIN

**Otsailak 21-martxoak 2:** 1996.  
eta 1997. urteko ihauteri argaz-  
kien erakusketa. Urigain Kultura  
Etxean.

## LEHIAKETA

### ANDOAIN

**Ihauteri argazki lehiaketa-  
rako oinarriak:** Argazkigin-  
tzan profesionalak ez diren 16  
urteko gorako herritarrei zuzen-  
du diete lehiaketa. Argazkiak,  
gutxienez 20x15cm-ko tamaina-  
koa, eta gehienez, 30x40cm-koa.  
Kartoi batean aurkeztuko dira,  
negatiboa eta guzti. Argazkiak  
Urigain Kultura Etxean utzi  
behar dira, goizeko 10:00etatik  
13:00etara.

## KOMIKIA



*Eta txote garria, ere bai*



# ANDOAINGO IKASTOLA

Txistoki Pasea Lekua  
Poligono 43  
Telefonoa 59 35 25  
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)

**kalitatezko  
euskal  
eskola**

**aurrematrikula:**  
otsailaren 17tik  
martxoaren 7ra

**zure  
aukera**

**zatoz**



Urtarrilaren 30ean egindako  
zozketaren irabazleak, hauek dira.

Gasa urte osorako dohainik:

**Magdalena García**

**Julian López**

**Manuel González**

Berogailua prezio erdian:

**Joxe Mari Artola**

**K**idegas, S.L.

**GASA ETA BEROGINTZA**




**KIDEGASEKO BEZEROEN  
ARRETARAKO ZERBITZUA**

**900 121 775**

# FLEMING IKASTETXEA

Arratzain z.g. ☎ 69 14 13 VILLABONA - ARROA ☎ 69 35 12

## EUSKALDUNA, DENONA eta DENONTZAT



- *Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)*
- *Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12) urte*

- *Matrikula: Otsailak 17 tik Martxoak 7ra*
- *Autobusa, jangela, informatika...*

**HERNIOBEA B.H.I.**  
(12-16 URTE)



**IKASTETXEAK**  
*Dr. Fleming, Pello Errota,  
Alkiza, Zizurkil, P. M.  
Otaño, Aduna*

